



**ALONSOTEGIKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN
AURRERAPEN DOKUMENTUARI AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNEI
BURUZKO LABURPEN TXOSTENA**

ALONSOTEGIKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

TERRITORIO  CIUDAD SLP

TAPER

HAP
Alonsotegi

Alonsotegi
udala ayuntamiento

AURKIBIDEA

- 1. SARRERA ETA LABURPEN OROKORRA1**
- 2. IRADOKIZUNETAN PLANTEATUTAKO GAI NAGUSIAK:
ERANTZUNAREN ZENTZUA ETA LABURPENA.....2**

I. SARRERA ETA LABURPEN OROKORRA

2025eko maiatzaren 30eko 391/2025 Alkatetza Dekretuaren bidez, Alonsotegiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) Aurrerapenaren dokumentua eta haren Hasierako Dokumentu Estrategikoa (HDE) jendaurrean jartzea erabaki zen, bi hilabetez. Epe horretan, edozein interesdunek aztertu ahal izan zuen espediente, egoki iritzitako iradokizunak eta proposamen alternatiboak egiteko. Era berean, Bizkaian hedapen handiena duen egunkarietako batean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea xedatu zen, bai formatu fisikoan, bai egoitza elektronikoaren bidez.

Informazio-izapidea iragarki bidez argitaratu zen 2025eko ekainaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (109. zk.).

Jendaurrean jartzeko epea amaitu ondoren, iradokizunak eta lotutako dokumentazioa bidali zitzaion idazketa-taldeari. 2025eko irailaren 9an, Idazkaritzak egindako ziurtagiria jaso zen. Ziurtagiri horretan, jendaurrean egon zen aldiari jasotako iradokizunak eta txostenak zehazten ziren, bai eta handik kanpo jasotakoak ere; guztira, 7 iradokizun jaso ziren. Ondoren, beste iradokizun batzuk epez kanpo jaso zirela ikusi zenez, Idazkaritza Nagusiari bigarren ziurtagiri eguneratu bat egiteko eskatu zitzaion. Ziurtagiri hori 2026ko urtarrilaren 13an eman zen, eta guztira bederatzir iradokizun aurkeztu ziren.

2026ko apirilean, iradokizunei erantzuna eman ondoren, Udalak jakin zuen Estatuko Administrazio Orokorraren erregistroaren bidez aurkeztutako iradokizun bat zegoela, eta iradokizun hori ez zela sartu idazketa-taldeari emandako ziurtagirian, eta, beraz, ez zitzaiola erantzunik eman aurkeztutako txostenen. Hori dela eta, Udalak 2026ko maiatzean eskatu zuen dokumentua zuzentzeko, iradokizun hori eta dagokion erantzuna eransteke.

Hirugarren ziurtagiri eguneratua eman zaio idazketa-traldeari. Ziurtagiri hori 2026ko maiatzaren 5ean eman zen, eta guztira hamar iradokizun aurkeztu ziren.

Dokumentu honen helburua aurkeztutako iradokizunak laburbiltzea da, gai komunen arabera multzokatuta. Horretarako, jendurreko informazio-aldian eta horiei erantzuteko aldiari planteatutako gai nagusien laburpena egin da. Hona hemen planteatutako gaiak eta horien inguruko iradokizunen kopurua, ehunekotan:

%10,00 Aurrekinaren planteamenduari buruzkoak Pertxetan
%10,00 AI-RU.02 Solobururi buruzkoak
%20,00 Kultura ondareari buruzkoak
%10,00 Antolamendu-alternatibei buruzkoak
%10,00 Trenbide-azpiegiturei buruzkoak
%10,00 Bide-azpiegiturei buruzkoak
%30,00 SUNS.01 Montealegreri buruzkoak

Aurkeztutako iradokizunak aztertuta, honako proposamen hau egin da:

- **Baietsiak: 5 (50,00%)**
- **Partzialki baietsiak: 4 (40,00%)**
- **Ezetsiak: 1 (10,00%)**

2. IRADOKIZUNETAN PLANTEATUTAKO GAI NAGUSIAK: ERANTZUNAREN ZENTZUA ETA LABURPENA

I. Aurrekinaren planteamenduari buruzkoak Pertxetan

Iradokizun bat partzialki baiestea proposatu da.

Alde batetik, Pertxetako lursailen jabeak beren lursailak zerbitzu publikoko lurzoru gisa erabiltzearen aurka daude. Aurreikusitako jarduketetatik kanpo uzteko eta babespeko lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzeko eskatu dute. Ildo horretan, lursailak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta daudela jakinarazi da.

Bestalde, hiri-lurzoru finkatuaren sailkapenari eustea eta Metro Bilbaoko kotxetegiaren ezarpena baztertua eskatzen da. Ildo horretan, jakinarazi da eremua jarduera ekonomikoetarako hiri-lurzoru gisa agertzen zela, inoiz garatu ez zen Plan Berezi baten baldintzapean. Era berean, ez ditu betetzen finkatzeko baldintzak, ezta gutxieneko zerbitzuak ere.

Gainera, kotxetegiaren kokapena Eusko Trenbide Sareak 4. lineari buruz egindako informazio-azterlanaren arabera da, eta geroko erabaki instituzionalen mende dago.

Bi iradokizunak kontuan hartu dira, baina gogorarazi da dokumentua aurrerapen-fasean dagoela, eta hurrengo faseetan egokitu ahal izango dela, alegatutako inguruabarrak ofizialki egiaztatzen badira.

II. AI-RU.02 Solobururi buruzkoak

Iradokizun bat ezestea proposatu da.

AI-RU.02 Soloburu eremuko lursailen jabeek Aurrerapenean planteatzen den eremuarekin lotutako hainbat gai iradoki dituzte. Iradokizunak barne hartzen du eremuko eraikigarritasuna handitzeko aukera, eragiketa ekonomikoki bideragarria izan dadin, eta eremu horrek izango lituzkeen hirigintza-kargak zein izango lirartekeen argitzea.

Irismen-dokumentua eta dagozkion sektore-txostenak aztertu ondoren, AI-RU.02 Soloburu eremua ez dela garatu behar erabaki da, udalerraren bizitegi-premia mugatua dela kontuan hartuta eta eremu horrek hirigintza-garapenerako egokitzat jotzeko baldintzak betetzen ez dituelako. Ondorioz, desklasifikatzea eta lurzoru urbanizaezina izatera pasatzea proposatzen da.

III. Kultura ondareari buruzkoak

Bi iradokizun baiestea proposatu da.

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak oharrak egin ditu kultura-ondarearen arloan. Eskatzen da: Ondasunak sailkatzea eta sartzeari Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen eta 6/2019 Legea aldatzeko 14/2023 Legearen arabera. Era berean, honako hau eskatzen da: Katalogatutako elementuen zerrendaz gain, ondasun bakoitzerako banakako fitxak sartzeari.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak, Kultura Ondarearen Zerbitzuaren bitartez, HAPOren aurrerapenari buruzko oharrak egin ditu ondare higiezinaren arloan. Gainera, plan orokorrak azken dokumentuan jaso behar diren lituzkeen hainbat gai arkeologiko aipatzen dira.

Erredakzio-taldeak gomendioak onartu ditu eta berretsi du plangintza bat etorriko dela kultura-ondarearen arloan indarrean dagoen legeria autonomikoarekin.

IV. Antolamendu-alternatibei buruzkoak

Iradokizun bat baiestea proposatu da.

AI-RU-03 La Barranka B eremuko lursail batzuen jabeekideek finkaren familia barruko banaketa errespetatzea eskatu dute, eta planteatutakoak ez diren beste etxebizitza-tipologia batzuk ahalbidetuko dituen antolamendu berri bat aztertzea proposatu dute.

Proposamena ondorengo faseetan aztertuko da, baina antolamenduak hirigintza-betebeharrak eta aplika daitezkeen legezko estandarrak bete beharko ditu, interes orokorrari lehentasuna emanez.

V. Trenbide-azpiegiturei buruzkoak

Iradokizun bat baiestea proposatu da.

ADIF erakundeak oharrak egin ditu Interes Orokorreko Trenbide Sareko 08-780 Santander – Bilbao La Concordia lineari buruz. Berariaz sartzeko eskatu du Trenbide Sektorearen 38/2015 Legea eta Trenbide Sektorearen Legea aldatzen duen 26/2022 Legeak egindako aldaketa, bai eta 2387/2004 Errege Dekretuak onartutako erregelamendua ere. Gainera, lurra Trenbide Sistema Orokor gisa kalifika daitezela eskatzen da. Adierazitakoaz gain, jabari publikoko zonako, babes-zonako, eraikuntzaren mugako eta lotutako erabileren mugetako lineak sartzeko eskatzen da, eta, horrez gain, hainbat zuzenketa eta ADIFekin koordinatzea, geltoki berriarekin eta trenbide-pasaguneekin lotutako gaietarako.

ADIFen oharrak onartu egin dira eta HAPOn hurrengo fasean txertatuko dira, plangintza indarrean dagoen trenbide-araudi sektorialera egokitzen dela eta erakundeen arteko koordinazio egokia bermatzen dela bermatuz.

VI. Bide-azpiegiturei buruzkoak

Iradokizun bat baiestea proposatu da.

Bizkaiko Foru Aldundiak eskatu du HAPOk:

1. Bizkaiko errepedeei buruzko 5/2021 Foru Arauari egokitzea.
2. Zuzen identifika ditzala foru- eta udal-tarteak, jabari publikoa eta eraikuntza-lerroak barne.
3. Errepedeen LPS (indarrean dagoena eta izapidetzen dagoena) aipa dezala.
4. Behar bezala sar dezala foru bizikleta-bideen sarea (PTSVCB), eta akats grafikoak zuzen ditzala.
5. Erasandako hirigintza-eremuetan eraikuntza-lerroak, zortasun-eremuak eta, kasu batzuetan, trafiko-azterketak edo sarbideen analisiak sartzeko.
6. Kontuan izan dezala BI-3651 errepedea hobetzeko foru aurreproiektua.

Eskatutakoarekin bat etorriz, HAPOk errepideei eta mugikortasunari buruzko foru-araudira egokitu beharko du hurrengo idazketa-fasean, eta adierazitako ohar eta baldintza sektorial guztiak jaso beharko ditu.

VII. SUNS.01 Montealegreri buruzkoak

3 iradokizun partzialki baiestea proposatu da.

Alde batetik, Azpiegiturak SAMP foru sozietateak Kadaguako korridoretik sektorerako sarbideak behar bezala zehazteko eskatu du. Gainera, aurkeztutako bideragarritasun-azterlanaren arabera, sektorea murrizteko aukera kontuan hartzera gonbidatu du.

Bestalde, 3 iradokizunak bat datoz eremuaren orografiatik eratorritako urbanizazio-karga handiak kontuan hartzearekin, eta horregatik eskatzen da eraikuntza-eskubideak murriztuko dituen sistema orokorrik ez atxikitzea, eremuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. Sistema horiek desjabetze bidez lortzea proposatu da, eta hirigintza-hitzarmen bat sinatzeko aukera planteatu da, garapenaren bideragarritasuna bermatzeko.

Aurrerapen-fasean dagoenez, hurrengo fasean bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa eta sistema orokorren atxiki penak aztertuko dira. Hala ere, argitu da antolamenduak interes orokorrari erantzun behar diola eta ezin dela akordio pribatuek baldintzatu.

TERRITORIO  CIUDAD SLP

TAPER